

S I N O D O A

Ezin uka sinodoa dela munduko gaurko berrietan aipatuetakoa bat. Aurretik Errialde eta eliz-barruti guzietan aztertutako gaiak ikusten eta sakontzen ari dira etengabe.

Lehenik munduaren egoerari gabegiritar bat ematen ari dira. Munduaren aldaketa, munduan dauden bigeakaberia eta desberdintasunak, Munduak bazterturik darduzkan jendetzak. Batzuen jauntxoeria. Gehienak dadukaten morrontza lotsagarria. Ekonomi, kultura eta politika alderdiak dituen zapalketak...

Munduaren aurrean Elizak duen zeregiña. Artu behar duen erabaki eta erantzunkizuna. Aundizki, jauntxo eta dirudunekin daduzkan loturak autsi-behara. Premidunen aldeko jarrera. Gaurkotu beharrean sugarra...

Eta Elizaren eginkizun eta joera ortan apaizaren izaera, zeregiña, biziera...

Zer bait gertatzen da apaiz-arteetan. Izan ere munduaren egoerak erasan dio apaizaren izaerari. Ba du munduaren egoerak apaizaren egoerarekin zerikusia.

Mundua maitatzeak, mundu ori salbatu nahiak, mundu ori eza-gutzera, mundu ortan sartuta bizitzera eragiten dio apaizari.

Apaizkeriak, apaiz-bizierak, apaiz-jantziak urrundu egin dute, berri, apaiza bizi behar lukean mundu ortatik.

Ortik beste edozein gizonetako bezala bizitzeko joera, jantzi, bizieraz eta loturaz, laneko, familiariko eta politikako eginkizunei ihes egin gabe.

Azpikoz gein jiratzeko dio apaizen jokabide guziaz pentsaera onak. Eta berealaxe datozkio ondorioak bere bizitzara.

Noiz arte gure gotzaiak kortesetako aukiaten? Noiz arte militar izanaz soldatu arteko kapellauak? Noiz arte bete ezin diren konsejularitza izparring eta sindikatuakoa apaizak? Noiz arte isilik gizonen eta errien eskubideak zapalzen dituan Estaduekurren aurrean? Galdetzen zuten Madrillikoa bazterean gotzai-apaizak.

Noiz Elizaren ondasunak behartsuen eskuetan? Erriaren serbitzuan? Elizaren pitxi eder-balioetsuak, arrizko elizak, apaiz-etxeak, eliz-aretoak, ondasun guzirik erriaren serbitzuan.

Au guzia esaten erraza da. Batetzen da zailla. Baiña or dago Elizaren oratigo joera. Or dago apaizen gogo biza. Or dago kristauren egarria.

Ez dira goizetik gaurera aldaketa aukeratuak ikusiko. Politi-politiki egingo diran aldaketak ditugu. Baiña abiatu da eta ez du iför: geldituko.

ZALANTZATAN DAGOEN APAIZ HORRI

Agur:

Elizak munduar agertu nahi duen mementoan, apezgaitegiak eta komentuak hustutzen ari dira. Horra hor dato bat. Igandean mezataria joetea, baita herri txikiak ere, modaz pasatzen ari da; Garizuma lehenago haragi-uzteka modaz pasa den bezala. Gurasoetiko errespetua eta amodioa gainbehera doaz; eta Europan zehar zaharrek ez dira etxen hiltzen, agure-etxeetan baizik. Mendetan zehar sexo-arazoetan gizarte-tabu izan diren erregelak, zaharrazatzen eta ortzen ari dira; eta «beti hala izan dela» esatek ez du gure argia biltzen, eta hitz erostu bat besterik ez da: arazo honetan benetako «debacle» bat dago. Hamabi urtetako neska-mutirik argi-eta-garbi esaten dute Jainkoari ez dagoela; eta hamaisei-hemezortzirekin (kasu bai geronen artean ere!) drogaran beharra nabaitzen hasiko da laister, Ameriketako eta Europan bezala (Polonia bane!). Ez da ia inor aurkitzen bizitza honetan «bidenabar» gaudela zinki sinisten duenik; eta inoiz Jainkoari bakardadean oitotz egiten diotik aurkitzeko, kandela bat ez litzake aski.

Kristau fedea atxikitzen duten fraileak eta sorerek ez dute abitia ikusi ere nahi; eta komentua utzi, ezkundu, eta kalean eta kaletan gisa eraman nahi dute Jesukristoaren mezuia. Denak omen dago gain-ditua, «superatua»; eta zutik ez bide da deusik ere geldituko. Zuk zerorrek ere dena utzi, eta mundu dar saltsan abiatzeko asmoa izan duzu behin baino gehiagotan; eta deliberoa ere aurki, itxura denez. «Apaiz berri» izan nahi duzu. Nok ez zintzuke ulertuko?

Maiia honetako krisirik inoiz ezagutu badu, ez du Elizak ezagutu aspaldi honetan horrelako gain-beherakorik; eta agnostiko garenko errepara dezakegu hau Elizak-barneko inork baino hobeki, nik tute. Ez dago aitortu honetan hiletza jontzeko gogorik batere. Krisia ez bait da instituzio-krisi huts bat, sinistun baiokor batzuek sinistarazi nahi luketaren kontra; Fede-krisi oso bat baizik. Ez da egia perhikatzeko «modua» aldatu beharreko dagoela, edo ebanjelioa «gaurko» problemen arabera azaldu behar dela, edo Eliza beste modu batera «antolatu» behar dela; eta, BSTERIK GABE, gauzak normal jarriko direla.

Krisia sakanago delako, bai instituzioak, bai moralak, bai dena, koloka daude gure begien aurrean. Eta zu zeu ere bildur zara oso; eta ez zinake gaur inolaz ere aurturto, esate baterako, kalean zehar, are gutxiago gaizte-biltzar batetara, Asis-ko Frantses edo Arseko Apaizari buruzko liburu bat besapean daukazularik agertzera. Herabe zara kristau fedea, edo gelditzen zaizun akzen auri hori, erakusteko. Defentsiban zaude oso ki.

Soluzioa politikaren mailan aurkitu aste duzu. Egia esateko: Jorera hau konprenitzen dute. Ukatu ezina bait da Elizarekiko urrunera politika-mailan sortua dela askotan. Mendi-gaineko sermoia gidaritzat omen duen Eliza, indartsuen morriño agertu da eskuarki; eta indargabe aldeko nahia, Elizaren kontrako iraultza bihurtzen da erazki. Zuk hau duzu gogoan, sentidu horretako taxa-pilo eskerga garbitzen lagundu nahi duzu, eta aisa ulertzen zait. Baina krisiaren soluzioa, sinistuta egon, ez da politika hutaren mailakoa, politika-mailan ondorioak izango baditu ere.

Kamaleoia bezala egitea erabaki bide duzu. Alegia: mundutarrak bezala jantzi, mundutarren kezak ez beste onhurtu, eta mundutarren nahiak, esperantzak eta helburu nagusiak (denak mundu honetara) gisa denez) zeure egin. Hitz batez: «modan» jarri nahi duzu, edo jartzeko bezerpan zaude. Asmo horretan abiaturik, ez zara aurrekoan beste munduaz mintzatu, mundu honetaz baizik; eta ez duzu gizonentzako zeruko loria bilatuko, lurra zoria baizik. Zure erlijio horretara politika iraultzaile bihurtuko da; eta zure predikua, mihin ezkerretan. Indartsuen laudoriotan oratutako politika lotsagarria egin beharrean, beste muturrera joango zara, baina politikaren mailan beti. Pilatos-en etxean enugero bapo afaldu beharrean, Pilatos-en kontrako iraultza muntatu duzu. Eta ez da dudarik al-dakuntza horretan Kristo-gandik

bertago zaudela. Zeure kontzientziaren arabera jokatu duzu.

Nik neuk, era berean, neure barneak esaten didana esango dizut. Federik ez baduzu, Jesukristo gaxlainen egilea dela eta hil ondoren piztu dela sinisten ez baduzu, ongi egingo duzu molde hori hartuz; nahiz hobeki litzazkan aurrerakoa Jesukristoaren lekuko gisa ez agertzea. Kristau fedea baldin baduzu, berri, mundutar moda horietara egokituz gaizki egingo duzu.

Laister Ameriketara joango den emakume gaizte bat ezagutu dut berriki. Segurantzia handiz eta txit sutsu mintzatu zait kontsumo-gizarte nazkagarri honen kontra; baita 1968-ko Malatzen izan zuen itaxarpen liluragarria. Ondoko gertakari hiteak, ordea, ilundu egin zuten etsiarazi, eta bitirako marokatu. Partidu «guziek» saldu zuten iraultza orain dela hiru urteko aste gogoangarri haiekan, eta denak zaku berean sartu beharra dago. Gutziz gogaituta, amerikertak talde iraultzaile batetara bilizte erabaki du senararekin eta haurrearekin; iraultza USA-n gertatuko bait da aurrenik.

Zein iraultzak mintzo da? Bi puntu nagusitarra bil ditake, one utzte, emakume honen helburua: 1) gaurko gizardeen ez dago «maitasunik»; zion ermuiki; 2) gaurko gizardeen dena da «zikoizerria» eta «txatukeria». Mundu berri bat behar da, EGIAK argitua eta MAITASUNAK oratua. Helburu honi in-situazio «guziek» egin diote uko. Gizarte osoa dago ustelduta, eta organizazioak «oro», baita ezker-tar izenekoak ere, zeharo ondortatuz-ion. Ihes egin behar da Frantzia-tik, ihes Europa oso-tik, ihes kontsumo-gizarterik, ihes orain arteko sasi-profeta guziet Norain ihes?

Aspaldian hau zitzaiken erantzuna: «basamortura». Gaur ez: «Ameriketara», esan zuten ene lagunak. Nahikunde metafisiko bati, erantzun politikoa bat eman diu, erantzun alienatu bat beraz. Ameriketara-zion; Erresuma Elikartuetara hair-zion; esuskaldun zaharrek bezala esateko. «arraina burutik us-telzen hasten delako», eta kontsumo-gizarte honen burua USA delako.

Emakume horren desirereta eta etsipenpereta ez dakusat sendimen-ta nahasirik edo funsgaberik. Beregan somatu duan iraultza-garra fina da; USA-ko arrazakeria eta beltzen zoritxarra kondentatzeko erabilien dituen hitzak, bidezko zaizki oso; G. Jackson-en gartzelaldi ezin lotsagarriago eta heriotza bitxia gaitzesteko, edozein gizon prestuk erabiliko litzazkan hitzak eta arrazoinak aurkitu ditu; gizardi harturik dituenak (Sartre, Angela Davis, Che Guevara, Jackson be-ra) gizon bikainak dira. Emakume hau, zinez, justizia-egarki itota dago: egiaiki dio kontsumo-gizarte do-lor hau uzkailli eta ankarz gora botata behar dela.

Jende askoren azterpidea, irudintzen zaidanez, eta gaizte prestu fin askorena bereziki, horixe litzake gutxi gorabehera; eta gure artean molde honetako pentsakera gaur lehen baino zabalago izatea, oso, serlotan hartu behar da, altxor bikain bat delako gure gorrakor.

Kontsumo-gizardeen GORAGALEA, eta berean nagusi eta jabe diren zaldimendu berri bat; eta zaldimendu izanik, ba dakizu Jesukristo MADARIKATU egin zitezake bai aberatsak bai farre-egiten dutenak. Baina horiek gaur, nik us-tute, sendimendu zabalago, egiazko-ago, eta hedatuago dira. Etsipen etsiaren zabalbunde bildurgarriak ez du, erroan, besterik erakusten; gu ohiu egin bide gara lohaga kirats honetan, baina gure begien aurrean mamitzen ari den mundu-nota bizi ezina da bere horretan.

Areago ere bai: ezagutu duan emakume horrengan; eta politikaz bizi, beren ezintasunaz jabetu, eta drogatzen hasten direnengand, akui-lu berbera bide da eragile: kontsumo-gizarte honi ihes egin nahi, baina egin egitea. Hippy deflakeok eta USA-ko ezkerreko elkarrekin lotura izatea, normala irudintzen zait: hauek eta haiek munda hau gaititu nahi dute gizakumeak dira, eta sentidu horretan ezkerretan. Besteak, mundua bere horretan baliatu eta uxtiatu nahi dutenak, eskuindarrak, pozik bizi dira kontsumo-gizarteen; eta ihes egin beharrik ez dute senditzen.

Hots, zein da gaurko gizadiaren ihesi-nahieren kaka? Hemen, iru-

ditzen zaidanez, batera letozke psikologoak eta soziologoak, literaturajoeren aztertzaleak eta zu zerori ere: ez datza kaka mekani-zazio edo automazioan bertan, ez teknikaren aurrerapenetan, ez baserria eta mendia utzi-beharran, ez gizarteren hirikuntzan, ez klase-banaketa eta ekonomi-desberdintasun lotsagarrietan beretan. Kaka hizierari SENTIDURIK EZIN AURKITZEAN DATZA.

Max Weber-ek bezala esateko, mundua «desliluruta» gelditu zai- gu. «desenchanté, desencantado». Kritikamena hotoz egin du mundua erantzi, kamustu, istusutu, liluraga-betutu. Eta haragia zeharo lar- ruto ondoren, hezur iharrak azal- du zaizkigu gorri-gorri; eta kos- moan arrotzak gurela uletu dugu. Ikaspen honek areago uxatu gaitu natura-lezatik, dirudiengatu, lehenago ko hoineko eta estalki koloretu eta gurtzartzaile haiek baino... Bi- zieraren sentidu emateko balio ez duen egia, Egia ez bait litzan.

Sexotasunari buruz gertatu de- na irudintzen zait gizarte-eboluzio- aren eredu on bat: sexo-gorabehe- rer misterioa eta izukutia kendu ala (eta erantzeta fenomenoaren neuria da) egoera «kartu egin da; eta sexoari buruzko liberazioak ugaltu egin du neurotikoen arma- da, antibiotikoek minbizidunen os- tete ugaldu duen bezalaxe. Giza- sexotasuna, bestealde, kontsumo-gai bihurtuz, glandula-mekanika axale- ko bilakatu da; eta urrats honi da- txe/on deslilurari, bame-hutsunea jarraitu zio Sexu-liberazio deritza- nak, horretara, agertu egin du gi- ze-egariaren bestetasun funtses- koa, eta ez ematu. Tabuaren za- palkeria, taburik ezaren desepes- ranta nagusitu zait; eta lilura de- bekatu urrunari, deslilura goaika- ri ezin hurbilago. Sexotasunean funtsätzen zen guziaz, eta arimaren elikatzaile ziren iturri freskoak, idortu egin dira.

Arrabotsa eta zalaparta gero eta behrango zaizkio horrela gizon modernuari.

Ba dirudi, hitz batez, gaurko des- lilura oso horrek bi arpegi duela: bata misterioaren suitsiera, bestea hizieraren sentidurik eza.

Hots, batetik misterioan funtsa- turik eman behar da munduaren azalpena, gauza nabarmena bait da mundua OSOKI dela misterio hutsa. Iritzi hau batzuten inkontzient- za izanagaitik ere, muinetan be- retan litzaturik darama gizonak: astrologiaren eta «Planeta»-ren arra- kastak lekuko.

Eta, bestetik, misterio horretan oraturik, gizonak helburu eder za- bal bat behar du gidari, Absolutu bat, eta honen arabera bizierari sentidu bat eman.

Itzul gaitzen, beraz, orain gure asmoa.

Zuk, adiskide ezezagun horrek, mezu bat dakaztu; eta mezu hor- retan misterioa eta bizieraren sen- tidua diracinhurri. Galari dagoiki- nez, beraz, seguru egon zaitze: gi- zontak behar duen HIZKUNTZAZ mintzo zara misterio eta sentidu horietaz mintzo zaren guzietan. Eta, alderantziz, misterioa eta bi- zieraren akzen azalpena alde ba- tera utziko dituzun neurrin, gizo- nark behar duen hizkuntzari urrun- duak zara.

Pilatos-en alde jokatzek ez du barkazko. Haur garbi da. Baina Pilatos-en kontra, eta Pilatos-en mailan kontra, jokatzeko ez da aski besterik gabe, trazendentzia-mezu orokor berezi baten ondorio ez ba- da. Pilatos ez da ebanjelioaren ara- zoa; eta Pilatos-en defentsaa, nos- ki, are gutxiago. Beste modu ba- tera esateko: mundutar moldera aldatu ala, zure mezuaren balioa galduko da; eta «ulergarriago» edo «baliagarriago» egin ala, ezabatu egingo da trazendentzia-mezu gisa.

Ez da egia zure mezu funtsaen moral-mezu huts baten mezu de- nik: estoioken moralak ez dio zo- rrotzez. Zure mezuaren indarra ho- netan datza nik uste: gizonak bar- ne-muinetan ENTZUN NAHI duen hizkuntza dela.

«Apezgaitegiak eta komentuak hustutzen ari dira» esanez hasi dut artikulu. Baina hau erants li- teke ene ustez: apaizak mundu- tarrago, eta elizak utsuago. Horre- tan kausa ondorio bikotea ikusi uste dut.

Mintza zaitze zeure mintzairan, eta entzuleak ez zaizkio faltako; Absolutu-egarria ez bait da gaur inoiz baino apalagoa.

Izan zazu, hitz batez, mundutar hizkuntzei entzurgor egiteko kua- raia. Izan zaitze ulertu-ezina.

Ala konkordismoak utz, eta uzta- zu dena.

Bitohetz agur t'ardi. Larresoro

ZELAN OSPE IZAN UNAMUNO'REN ANTZEKO

Etyll T. Lawrence, galestarrak. «Cuadernos para el Diálogon» de- rixitun aldizkariari. XXVI Aparteko zenbakian, oso lan interesari bat idatzi dau.

Gaia, Unamunoren «euskaltzaleta- suna».

Bertan, aren euskal Kontrakeri gorrotodunen sustraiak aztertzen dugu. Luze izan arren zati batzuk aipatuko doguz:

«...batzuk, uri ingelestauetan (ga- lestarra dala esan dogu) euren umetan galesera ez eben ezagutu- ko. Eta zaartzaroen, euren indarren gain egonik, premia asko diran aalegiñak larregi dira eurentzako —oztopo eta eragozpen anibeste- kin batez be— galesera, euskera be- zala, izkuntzari gaxnetarriko da ba ikasteko (olan diño...), Emendik etorri leike azken ondorio au: euren asaberi izkuntzaganoa minbe- ratasun bizi eta airtutu bakoa, eta bear bada, ezkutuko gorrotu bat; guzti au, sendimendu gogor bate- gaz, zalanantz eta beldurrez, edo eruz eta konfusioz beteta, naas- turik. Gogo orok nek min emoten deutse. Izkuntzaganoa obligaziofi- ta buruaeste danak utzirik, maitz ezin dabem —edo maitz gura izan ez dabem— izkuntzaren eriotza-arte eldu gurako leukie sarritan».

«Euren asaberi izkuntzaren zintzo- tasun ukatua, ezerezean uzten da- ben benetako guraso ilketa batek, sortzen da benetan, alde batetik barruko erriren sendimendua astuna, eta bestalderik anibalanzki zalantz- tsu bat».

«Eri txikietatko izkuntzaren idaz- larien, euren literatura aundi-nai ta euren ospetsua, sarritan alboratu dabe erriaren onagaitik; euren iza- tearen alde erri txikiak darabilen burruka gogorak, eskatzen dabem osan bearrak, laburtu egin dabe idazlari onena, askotan erriaren onagaitik: orrenbeste egiteko gau- za ez zan Unamuno».

«...Bere kondairan zoritxarreko- dan eta etorkizun ilunetan dabem aberri bateko gizona, bere erriaga- nako zintzotasun burukoapentsu ta ekinztzalea, albo batera uztea, eta zapaltzaile dan aberriaren izkuntza oso-osorik beretzat onartu ezker- o, joan lei xinplekri gurari batera, berak ezitsitzen dabem izkuntzaren ilketa gurari agirik edo xilipeko- ere: olako gizonaren urteera, eta

jokabideak, era askotakoak izan leiz ba».

Azterketa onen ondorio importan- te bat, Unamunoren jokabidea adit- zera emotea da. Peninsulako iz- kuntza guztiak zapaltzea, portugale- ra bere bai, ta espainiera, jaskaña, ez ezik; gizon «orokor», «unibe- rralista» onen jokabidea dala ikus- ten dogu.

Eta gogoan ondño: Gizarteko ar- tu-emon guztiak, «euren izatearen alde erri txikiak darabilen burruka gogorren» azalpenak dira, nai ta nai ez, eta albo guztietan Unamu- noren antzeko jokoak aurkitzen do- guz.

Benetan, onelakoxe jokabide ain argi ta garbier, Euskal Eriaren kon- tzentziatik ta aren nortasun iraun- tzeko naiak, ateak itxi deutseiz. Beraz, batzuekan, Euskal Eriaren alde interes faltso baten mende- an, joko berbera ikusten dogu. Olan, erria konfusioz bete dabe, gure indar makalak sakabanatzen dabez, eta itz batean azpilan doillor eta kaltigarria egiten deuskue. Gure izkuntzaganoa idatzi anarkia, ikas- toletako erlejiofio arazo, gure arlo edo prolema audienak izango bai- lirakcan legez onartuz, abibide bi- dira. Zapaltzaile bezala gu artoa ekonomiar buruz, beste abibide bat da. Eta ortaz, gure benetako arloak ezagutu barik eta erantzun- bidz barik doguzala, leendabiziko ondorioak dira. Esate baterako, egiazko Euskal Eriaren eta eus- kal-langilleen zapalketa, uts andiak, euskeraren atzerakuntza geldi- arazotea, ikasletoletako diru-larriak eta zabalpena erabakitzea, tab., tab.

Jokabide onekin, bakar-bakarrik lortu nai dabe «ezetsitzen dabena- ren... ilketa» —nai ta nai ez— esa- era zaarrik diñon legez:

«Nor nor dan Mariñasi ezautu-ko dona: emonetatik zugata, egifnetetik gizona».

Edo beste era batera esateko: daukagun burruka gogorra Euskal Eriaren alde utzi.

Jokabide onari esker, Unamuno ospetsua egin zan, eta esan degun jokabidea, berbera da. Ospetsua bai, aren aberria gaitzetsi eban arren.

URIA